

Altza / Herrera

# EPAko literatur sariak banatuta

Guztira 25 lagunek hartu dute parte

Larraitz Garmendia (943 39 12 67)

**J**oan den astean Altza-Herrerako EPAk (Helduen ikasketa zentroa) literatura lehiaketaren sariak banatu zituen. Bi urtetik hona antolatzen den lehiaketa horretan, Herrera eta Txintxerpeko EPA zentroetako ikasleek hartzen dute parte.

Aurten, guztira, 25 lagunek aurkeztu dituzte beren lanak. Gogoan izan dezagun EPAko zentroetako ikasle gehienak emakumeak direla. Gaien aldetik, originaltasuna azpimarratu daiteke. Esaterako, ez dira ipuin klasikoak eta detektibe motakoak falta izan. Antola-tzailleen arabera, parte hartzaileek irudimen handia izan dute beren idazkiak egiteko orduan. Alde horretarik, aipatu beharra dago aurkeztutako lanetako batzuk EPA zentroetan urtean zehar egin ohi diren literatur taile-

rretan eginak direla. Beraz, egileek tailerretan erabilitako literatur irizpideak kontuan izan dituzte beren lanak sortzeko garaian. Hizkuntzaren aldetik, lan guztiak erdaraz egin direla. Ezin beste modu batera izan, EPA zentroetan ikastaro guztiak erdaraz egiten dira eta.

Ipuinen atalean, hiru sari banatu dira. Lehen saria, Arantxa Lizarrondok eramandu, "Menudo genio" lanarekin. Bigarrena, Ainhoa de Agueda "La gata negra" ipuinaren egilearentzat izan da. Hirugarrena, azkenik, Rober Arinentzat, "Mikel eta la señora misteriosa" lanarengatik.

Poesia atalean, aurten lan gutxi jaso direnez, aurreko urtean ez bezala, sari bakarria ematea erabaki da. Gizonezko batek eramandu etxera, Adolfo Rincón "Amor" lanaren egileak.

Añorga



# Arkaitz taldea Idahora

Lierni Ofamendi (943 31 69 99)

**a**uzoko Harkaitz dantza taldeko helduak Estatu Batuetako Idaho Estatu Boise hiria doaz aurtengo udan. Auzoko dantzariak uztailaren 25ean bertan egitekoa den euskaldunen jaiaren parte hartuko dute. Hori dela eta, hainbat ekimen bultzatzen ari dira bidaia ordaindu ahal izateko.

Azken aldian taldeko partaideek boletoak saltzen ari dira, 200 pezetatan.

Zozketa datorren ekaineko ostegun guztietan egingo da. Itsuen zozketan egokitzen den zenbakia tokatuz gero, 2.000 pezeta irabaziko dira astelehenetik ostegunera eta

5.000 pezeta ostiralean.

Ez da hori, baina, dantza taldeko kideek sosa batzuk jasotzeko asmoz, egiten ari diren ekimen bakarra.

Laister elastikoak jarriko dituzte salgai. Lau koloretan egin dituzte zein baino zein politago.

Hori gutxi balitz bezala, taldeak hainbat ospakizunetan parte hartuko du datozen hilabeteetan. Kontua, Idahorainoko bidai gastuak merketzea da.

Laguntza eskaini nahi baduzu, hau da, boletoak edo elastikoak erosi nahi badituzu, taldeko kideengana jo dezakezu, edo Harkaitz taldeak Añorgan duen egoitzara.

**IRUTXULOK korrespontsalak behar du Amara Berrin**

**Deitu 943-429593 telefono zenbakira**